

**Gasteizko Udaleko Gizarte Zerbitzuen,
Arabako Foru Aldundiaren (GOFE)
eta Arabako Erakunde Sanitario Integratuaren
arteko lankidetzaz- eta koordinazio-protokoloa**



PROKOKOEA PRESTATZEA

Arabako ESla:

Nieves González. Gizarte-langilea, Pazienteak Kudeatzeko Zerbitzua

Arantza Ortiz Cerezo. Erizaintzako arduraduna, Lakua Arriaga OZ

Amia Sáenz de Ormijana. Koordinatzaile soziosanitarioa. Ondokoa, Arreta Integratuaren Zuzendaritza

Gasteizko Udala:

Boni Cantero. Zuzendaria, Gizarte Politiken Saila

Rosa González. Zuzendaritzako Unitate Teknikoari Laguntzeko arduraduna. Gizarte Politiken, Adinekoen, Hurren eta Familien Saila

Belén Ceberio. Familiak Zaintzeko Unitateko burua, Haurrak eta Familia Zerbitzua

Conchi Zapatera. Aurora Egoitzaren arduraduna, Adinekoen Zerbitzua

Txaro Basterra. Gizarteratze Zerbitzuko burua

Arabako Foru Aldundiaren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea:

Inmaculada Rodríguez Ramiro. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuen eta Mendekotasun Prestazioen koordinatzailea

Olga Díaz de Durana. Adinekoen Arloko Erizaintzako koordinatzailea

Maika Díez Bermejo. Gizartegintza Arloko zuzendariordea

Esther Astola. Koordinatzaile soziosanitarioa

AURKIBIDEA

SARRERA	4
Justifikazioa eta Testuingurua	4
Printzipio gidariak	4
ERAGILEAK	5
Prozesuaren arduradunak	5
Parte-hartzaileak	5
Hartzaileak	6
Lege-esparrua/Arau-erreferentzia	6
HELBURUAK	7
Helburu Orokorra	7
Helburu Espezifikoak	7
Konfidentziasuna	7
PROZEDURAREN GARAPENA	8
Kasuak detektatzea eta koordinatzea	8
Prozedura arrunta	9
Prozedura urgentea	10
Jakinarazpena	11
Baterako jarraipena eta esku-hartzea	12
Komunikazio-kanalak	13
Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioko lantaldeak	13
PROTOKOLOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	14
Jarraipena eta hobetzeko proposamenak	14
ERANSKINAK	15

SARRERA

Justifikazioa eta testuingurua

Osasun eta Gizarte Zerbitzuak giltzarri dira pertsonak gure gizartean eskubide osoko kide gisa garatzeko, eta oinarritzeko bi zutabe dira komunitate kohesionatu bat eraikitzeko.

Laguntzaren kalitatea puntu sendoa da arreta soziosanitarioaren idearioan, eta pertsonen bizi-kalitatea sustatzen duen laguntza baten bidez lortu ahal izango dugu.

Gure jarduerak, integraltasun-, pertsonalizazio- eta jarraitutasun-eskakizunak betetzeaz gain, zuzenak izan behar dute ikuspegi tekniko eta etikotik, izan ere, horren mende dago herritarren duintasunaren eta eskubideen errespetua.

Egun, herritarrek osasun-arreta Osakidetzaren mendeko Lehen Mailako Arretako Unitateetako (aurrerantzean, LMAU) eta Arabako ESko ospitale-baliabideetako profesionalen eskutik jasotzen dute. Bestalde, gizarte-arloko arreta Gizarte Zerbitzuetako profesionalak eskaintzen dute, bai Gasteizko Udalekoek, bai lurraldeko 20.000 biztanle baino gutxiagoko beste udal eta kuadrilla batzuetakoek (Udal Gizarte Zerbitzuak, aurrerantzean UGZ1), bai Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeek.

Printzipio gidariak

Protokolo honen helburua da osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen eta horien profesionalen jarduerak partekatutako balioetan oinarritzea, besteak beste:

- Sistemen konpromisoa sortzen ari diren behar soziosanitarioekiko
- Arreta soziosanitarioa ematen duten profesionalen zerbitzu-bokazioa
- Erantzunkidetasuna, hau da, profesionalen, eragileen eta, oro har, euskaldunen erantzukizun partekatua
- Pertsonak ardatz dituen arreta

Era berean, beharrezkoa da gure jarduera gidatu behar duten printzipioak partekatzea, pertsonen duintasuna eta haiek babesten dituzten eskubideak aintzat hartuta. Honako hauek dira:

- Pertsonen autonomia, nor bere erabakiak hartzeko askatasuna barne, gaituta dauden alderdietan haiek ordezkatzeko saihestuz, haien eta zaintzaileen parte-hartzearekin eta pertsonen beharretara hobekien egokitzen diren baliabide sanitario eta/edo sozialak esleituta (Pertsonarengan Oinarritutako Arreta Eredutik).
- Errespetatzea pertsonen pribatutasuna eta intimitatea eta informazioaren konfidentzialtasuna, eta neurri horiek beharrezkoak diren babes-ekintzen mende jartzea
- Justizia soziala eta ekitatea, sistemaren iraunkortasunetik abiatuta, hots, baliabide sozial eta sanitarioak modu justuan banatuz.
- Konpromisoa hartzea arretaren diziplina anitzeko eta diziplinarteko ikuspegian, eta ziurtatzea arreta jarraitua, pertsonalizatua eta eraginkorra
- Beharrezkoa den gutxieneko esku-hartzea, jarduketak errepikatzea saihestuz
- Prebentzioa, sustapena eta pertsonen babesa

1 Udal Gizarte Zerbitzuak (GZ) terminoak honako hauek biltzen ditu: Gasteizko Udaleko eta 20.000 biztanletik beherako lurraldeko udalerririk guztietako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak, Udal horren zerbitzu espezifikokoak (Adinekoak, Haurrak eta Familiak eta Gizarteratzea) eta Gasteizko Udalaren mendeko Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua (GLUZ), nahiz eta Arabako lurralde historiko osorako erantzuten dion.

ERAGILEAK

Prozesuaren arduradunak

- Arreta Integratuko Zuzendaritza, Arabako ESIa
- Gizarte Politiken, Adinekoen, Haurren eta Familiaren Saileko Zuzendaritza, Gasteizko Udala
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (GOFE) Gerentziako Zuzendaritza eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Arabako Foru Aldundia (AFA)

Parte-hartzaileak

Arabako ESItik:

- Arabako ESIko osasuneko Lehen Mailako Arreta Unitateak (LMAU)
- Arabako ESIaren ospitale-zerbitzuak

Gasteizko Udaletik:

- Komunitate Jarduerako Zerbitzua
- Gizarteratze Zerbitzua
- Haurrak eta Familia Zerbitzua
- Adinekoen Zerbitzua
- Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundetik (GOFE)

- Esku-hartze Sozialeko Alorra
- Adinekoen Arloa
- Desgaitasuna duten Pertsonen Alorra
- Adingabeak eta Familia Alorra
- Gizarte Zerbitzuen Idazkaritza (Koordinatzaile Soziosanitarioa)
- 20.000 biztanletik beherako udaletako eta kuadrilletako oinarrizko gizarte-zerbitzuak.

Hartzaileak

Protokolo honen hartzaile izango dira, osasun- edo gizarte-egoera dela medio, bi esparruetako –soziala eta sanitarioa– arreta koordinatua behar duten edo beharko duten pertsona guztiak, edozein arlotako profesionalek detektatutako arreta-premia eragiten duten inguruabarrek ahalbidetzen duten ongizate-maila goren mantentzearen edo berreskuratzearen alde.

Pertsonen ongizatea osasun- eta gizarte-esparruetako arreta koordinatua lagungarria izan daitekeen era eta moduetan mehatxatuta egon daitekeen egoerak pertsonaren/familiaren unean-unekeo bizi-zikloaren edo beharraren arabera izango dira, besteak beste:

- Emakume haurdunak, eta, bereziki, nerabeak eta kalteberatasun-egoeran dauden gazteak
- Kalteberatasun- edo babesgabatasun-egoeran dauden haurrak eta nerabeak
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak eta haien kargura dauden seme-alabak edo mendeko pertsonak
- Arrisku-edo babesgabatasun-egoeran dauden adinekoak (65 urte edo gehiago)

Eta bizi-zikloaz harago, osasun- eta/edo gizarte-egoera dela-eta arreta soziosanitarioa behar duten pertsonak:

- Osasun-preskripzioak jarraitzeko zailtasunak dituzten pertsonak
- Laguntza eta/edo kanpoko laguntza eskatzeko mugak dituzten pertsonak
- Eguneroko bizitzako oinarrizko autozaintza- eta/edo tresna-jarduerak nekez egiten dituzten pertsonak
- Diru-sarrerarik ez duten, lana topatzeko arazoak dituzten eta/edo etxebizitza-arazoak dituzten pertsonak

- Zainketa-lan gehiegi duten pertsonak/familiak
- Familian eta/edo gizartean bizitzeko arazo larriak dituzten eta laguntzarik ez duten pertsonak
- Ospitalean alta eman ondoren etxean laguntza eta/edo gizarte-laguntza behar duten pertsonak
- Larrialdi soziosanitarioko egoerak pairatzen dituzten pertsonak, inplikaturako edozein zerbitzutako profesionalak identifikatuta (Gizarte Zerbitzuak eta Osasun Zerbitzuak) eta aurreko edozein egoeratan egon daitezkeenak edo ez.

Espazio horretatik abiatuta, taldean eta komunitatean esku hartzeko proiektuak edo programak planteatu eta azter daitezke, egoki irizitako esku-hartze arloetan.

Lege-esparrua/arau-erreferentzia

Ikus zabaldutako araudiaren 1. eranskina.

- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena (2., 4., 8., 14. eta 15. art.).



HELBURUAK

Helburu Orokorra

Protokolo honen helburua da bi alorretako zerbitzu koordinatuak (soziala eta sanitarioa) behar dituzten pertsonen arretaren kalitatea hobetzea, ahalik eta ongizate handiena lortzeko.

Helburu hori lortze aldera, dokumentu honek Osasun Sistemaren eta Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazio-, jarduketa- eta lankidetzeta-prozedura bateratua definitzen du, gizarte- eta osasun-alorretik esku-hartze integratua ahalbidetzeko.

Helburu Espezifikoak

- Bi sistemen arteko koordinazioa, informazio-trukea, deribazioa eta kasuen baterako esku-hartzea hobetzea
- Arreta bateratua jaso dezaketen pertsoneri bi sistemetarako sarbidea erraztea, batez ere gizarte-kalteberatasuneko egoeran daudenekin bitartekotza eginez.
- Hiru erakundeek batera esku hartzeko programak eta proiektuak diseinatzen, ezartzen eta ebaluatzen laguntzea, taldean eta/edo komunitatean
- Bi alorretako erakunde eta profesionalen arteko informazio-trukea erraztea (programak, baliabideak eta zerbitzuak)
- Bi sistemen lantaldeen baterako prestakuntza sustatzea

Konfidentzialtasuna

Gizarte- eta osasun-zerbitzuen alorrean lan egiten dugunok etengabe sartzten gara pertsonen espazio pribatura esku-hartzeak gauzatzeko, haien babesteko eta/edo haien autonomia garatzeko laguntzak emateko. Hala, haien gorputza ukitzen dugu, haien balioak ezagutzen ditugu, haien sentimenduak eta harreman afektiboak aztertzen ditugu, haien ondasunak eta baliabide ekonomikoak kudeatzen ditugu, haien historia pertsonala eta familiarra ezagutzen ditugu, haien datu klinikoak eta hezkuntzakoak eskuratzen ditugu; azken batean, etengabe egoten gara haien eremuan, zeina pribatua den eta segurtasuna ematen dieten konfiantzazko pertsona horiei bakarrik mugatzen dieten. Pribatutasuna edo intimitatea espazio propioa, intimoa eta eskusiboa da; bertan, nor bere burua askatasunez eta derrigortzerik gabe adieraz dezake, eta konfiantza sortzen duten pertsonak baino ez dira sartzten. Horregatik, baimena ematen zaie kalteberatasun-maila handiko eta kalte-mehatxu handia duen espazio hori partekatzeko.

Esparru horretan, konfidentzialtasuna ezinbestekoa da pribatutasun-beharra aitortu eta errespetatzen duen esku-hartze baterako. Konplexutasun handiko gaia da, zalantzarik gabe, baina beharrezkoa da aztertzea, pertsona eta talde askori laguntzen dieten profesionaleri eragiten baitie eta arduratzen baititu. Baina, horrez gain, gai garrantzitsua da, profesional gisa legezko betebeharra betetzeaz gain, pertsonetikiko eta haien eskubideekiko errespetua bermatzen baitu, haien duintasuna aitortuz.

Bestalde, gizarte- eta osasun-zerbitzuetan erabiltzen diren datu pertsonalak bereziki sentikortzat jotzen dira, eta dagoen babes handiena dute dibulgazioari eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko aukerei dagokienez.

Hala ere, konfidentzialtasunak talka egin dezake pertsonaren beste premia zein eskubide batzuekin edo hirugarren pertsonen eskubide eta interesekin. Salbuespenezko egoera horietan, behar bezalako diskrezioa eta konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharra arriskuan jarri edo mugatu egin daiteke. Hori dela-eta, zenbaitetan, esku-hartzearen nolakotasunek informazio pribatua ematera behartzen gaituzte, interesdunaren baimenik gabe. Hau da, batzuetan, konfidentzialtasuna urratzea justifikatuta egon daiteke. Haatik, kasu horiek beti behar dute gure aldetik salbuespenaren oinarri argi eta nahikoa.

Hauek dira deskribatutako salbuespen-egoerak: urgentzia, pertsonari kaltea eragiteko arriskua hirugarrenei ez bazaie informazioa ematen, autonomia mugatua duten pertsonen osotasunerako edo osasunerako arriskua, lege-agindua, ondasun publikorako arriskua. Egoera horietan guztietan, pertsonaren baimenik gabe ere informatu egin beharko dugu.

Azkenik, adierazi behar da informazio oro ezin dela helarazi, edo ezin dela helarazi informazio hori ezagutzen den unean. Ahalik eta informazio gutxien helaraziko da, eta helburua pertsonari ahalik eta kalte txikiena eta onurarik handiena eragitea izango da beti. Ahal den guztietan, eta horrekin arrisku-egoera areagotzen ez bada, pertsonaren borondatezko baimen askea lortuko da, behar bezala informatu ondoren. Ez bada pertsona edo familia interesdunaren baimenik lortu, informazioa transferitzen denean, eta ahal den guztietan, hori egin duen zerbitzuak egin izanaren berri emango dio pertsona edo familia interesdunari, betiere ez badago arriskurik edo babestu beharreko egoerarik.

Ezin dugu ahaztu, bere egoera eta bere gaitasunaren muga gorabehera, pertsona dela beti bere informazio pertsonalaren titularra. Informazioaren titular gisa, pertsonak informazioarekin eta baimenarekin lotutako eskubideak ditu.

Pertsonak ez duenean erabaki horiek hartzeko behar besteko eskumena, legezko ordezkariaren edo izatezko zainzailearen edo borondatezko ordezkariaren bidez babesten eta egikaritzen dira eskubideak. Baina ezin dugu ahaztu, egoera horretan ere, pertsonak eskubide horien titular izaten jarraitzen duela eta, bere gaitasunaren arabera, erabakiak hartzen parte hartu behar duela.



PROZEDURAREN GARAPENA

Kasuak detektatzea eta koordinatzea

Pazienteak artatzen dituzten osasun-profesionalek planteatu dezakete pertsona horiek Gizarte Zerbitzuek artatu behar dituztela, eta, era berean, Gizarte Zerbitzuetako profesionalek haiengan osasun-premiak antzeman ditzakete, bai zerbitzu horietan dagoeneko artatuak izaten ari diren pertsonentzat, bai besteentzat. Gainera, posible da batzuek zein besteek informazioa trukatu, kasuak koordinatu eta esku hartzeko planak elkarrekin diseinatu eta planteatzeko beharra izatea.

Normalean, bi sistemetan identifikatzen dira pertsonak, haiekin edozein esku-hartze egin aurretik. Dena den, baliteke kasu batzuetan halakorik ez gertatzea, hainbat inguruabar medio, posible delako pertsonak ez edukitzea identifikazio hori ahalbidetzen duen dokumentaziorik. Kasu horietan, baliteke esku-hartzeak alde aurreko administrazio-izapidetze bat behar izatea, zeina Arreta Integratuaren Zuzendaritzari eskatu ahal izango zaion.

Prozedura arrunta

Osasunaren Lehen Mailako Arreta

Arabako ESiko edozein profesionalek detekta ditzake kasuak.

Lehenengo urratsa honako hau izango da: pazienteari Gizarte Zerbitzuekin koordinatu daitekeen egoeraren berri ematea eta jakinarazpen hori egiteko baimena eskatzea, salbu eta pertsonarentzako edo beste pertsona batzuentzako arrisku-egoera badago.

Egoera soziosanitarioa hobetzen laguntzeko, informazio-trukea honela gauzatuko da:

- Lehen Mailako Arretaren esparruan, kasuaren jakinaren gainean dagoen profesional sanitarioak Osasun Zerbitzuko arduradunari bidalitako mezu elektronikoen bidez, eta Lehen Mailako Arretako Unitateko buruari (LMAUko burua) kopia bat bidalita, protokoloaren jarraipena egiteko. Mezu horretan, enkriptatuta bidaliko dira datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea...) eta koordinatzeko beharra (ikus harremanetarako datuak biltzen dituen eranskina).
- ospitale-eremuan, interkontsulta bidez (presentziala, ospitale-egoitzatik; ez-presentziala, kanpo-kontsultetatik), dagokion egoitzako gizarte-langileei. Horiek, era berean, posta elektronikaren bidez jarriko dira harremanetan UGZren arduradunarekin, erabiltzailearen LMAUko buruarekin, kasuaren jarraipena egiteko. Mezu berean, enkriptatuta bidaliko dira datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea...) eta koordinatzeko beharra profesional egokienarekin (ospitalekoa edo Lehen Mailako Arretakoa).

UGZtik egiaztatuko da pertsona hori UGZ horretan edo udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuen sareko beste batean artatzen den. Kasu horretan, informazioa eskatzen duen profesionalari eta LMAUko buruari erreferentziako gizarte-langilearen izena jakinaraziko zaie, koordinazioari egiteko edo, hala badagokio, jarraipena emateko. Hala ez balitz, baina arreta benetan maila horretan ematea egokituko balitz, erreferentziako profesional bat esleituko litzaioke, eta profesional horren izena, berriro ere, esku-hartzea eskatu duten profesionaleri jakinaraziko litzaieke, eta koordinazioari ekingo litzaioke. Dagokion UGZ harremanetan jarriko da pertsonarekin, eta hitzorduaren lekua, eguna eta ordua jakinaraziko zaizkio, eta arreta emango dion profesionala nor den ere esango zaio.

UGZetan artatzen ez den pertsona bat bada eta foru-zerbitzuek arreta eman diezaioketela balioesten badute, Gizarte Informazio eta Arretarako Bulegoarekin harremanetan jarriko da horretarako emandako helbide elektronikoen bidez, eta bertan egiaztatuko da erreferentziako profesionalik baduen edo, hala badagokio, esleitu behar den, mendekotasun-, babesgabetasun-, desgaitasun- edo bestelako kontingentzia-egoeraren arabera.

Dagokion balorazioa eta/edo tratamendua egin ondoren, Gizarte Zerbitzuko profesional arduradunak informazioa eskatu duen profesionalari eta LMAUko buruari jakinaraziko die ea pertsona hitzordura joan den eta zer egin duen.

Egoera ospitalean detektatzen bada, jakinarazpena larriaren arabera bai dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara bai Arabako Foru Aldundiko GOFeren Adingabeen eta Familien Arloko Harrera eta Balorazio Unitatera bidaliko da

- Maite Nuñez (AMF Harrera eta Balorazio Unitateko burua): mnuñez@araba.eus

**** Haurrak babesgabetasun-egoeran egon daitezkeenaren susmo kasuetarako kontsulta-zerbitzua**

Haurren kalteberatasun- eta/edo arrisku-egoerak edo babesgabetasun-egoerak hautemateak sor ditzakeen zalantzak direla medio, Haurrak eta Familiak Zerbitzuko Balorazio Unitateko Burutzaren eta/edo Gizarte Ekintzako Zerbitzuko Programa Psikosozial eta Komunitarioen Burutzaren bidez kontsultak egiteko aukera ematen da, jakinarazpenaren aurretik, detekzio-adierazleekin eta familiekiko komunikazioarekin lotutako alderdiekin.

Horretarako, osasun arloko profesionalen artean haurren babesgabetasun-egoera bat egon daitekeen zalantzak edo kezak sor ditzakeen edozein egoera hautemanen gero, haurrak zerbitzu horrekin harremanetan jarri ahal izango dira honako helbide hauen bidez:

- Susana García (Haurrak eta Familia Zerbitzuko Balorazio Unitateko burua): sgarcia@vitoria-gasteiz.org
- Antonio Jesús Ruiz Barranco (Ekintza Komunitarioko Zerbitzuko Programa Psikosozial eta Komunitarioen burua): ajruiz@vitoria-gasteiz.org

Mezu horietan, eta adingabearen edo haren familiaren identifikazio-daturik eman gabe, profesionalak kasuaren ezaugarriak azaldu ahal izango ditu, eta lehen orientazio bat eskatu ahal izango du. Bide hori erabiltzeak lehen orientazio horri bakarrik erantzuten dio, baina ez du salbuesten prozedura osoaren jarraipena egitetik, jakinarazpena barne, orientazio horrek susmoak baieztatzen dituen kasuetan.

Lehen Mailako Arreta Soziala

Bestalde, Udaleko edo Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sareko profesionalak kasuan kasuko LMAUekin koordinatu beharreko kasuen bat dagoela detektatzen badute, honela jokatu da:

- Lehenengo urratsa izango da interesdunari jakinaraztea bere osasun-zentroko profesionalekin koordinatu daitekeen egoera, eta jakinarazpen hori gauzatzeko baimena eskatzea, salbu eta pertsona bera edo beste batzuk arriskuan dauden egoeretan, halakoetan ofizios jokatu baita, bai eta Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legean jasotako kasuetan ere (22 quater artikulua). Datu pertsonalen tratamendua.
- Egoera soziosanitarioa hobetzen laguntzeko helburu berarekin, kasuaren berri duen Gizarte Segurantzako profesionalak Lehen Mailako Arretako Unitateko buruari (LMAUko burua) bidalitako mezu elektronikoen bidez gauzatu da informazio-trukea, Gizarte Segurantzako arduradunari kopia bat bidalita. Mezu horretan, datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea...) bidaliko dira, enkriptatuta, eta koordinatzeko beharra dagoela jakinaraziko da
- LMAUko buruak helaraziko dio informazioa osasun-zentroko erreferentziako profesionalari, kasuan esku hartuko duten bi sareetako profesionalen arteko koordinazioa errazte aldera. Pazientea artatzen duen profesionala arduratuko da gauzatu jarraian berri emateaz Gizarte Segurantzari.
- LMAUko buruak egiaztatzen badu aipatutako pertsona ez dela osasun-zentroko pazientea, erreferentziako osasun-zentroa zein den jakinaraziko dio Gizarte Zerbitzuari

Prozedura urgentea

Bi kasu bereizten dira:

- Bi zerbitzuetako edozeinek (sozialak edo sanitarioak) profesionalen lan-ordutegian detektatzen diren kasu urgenteak premiaz jakinarazteko beharra dagoela balioesten badute, telefono bidez egingo da, arinagoa izan dadin. Horretarako, kasuak zuzenean koordinatzeko emandako telefonoa erabiliko da. Ospitalean detektatzen bada, ospitaleko gizarte-langileari interkontsulta egin beharko zaio, balorazioa egin dezan. Hortik aurrera, gizarte-langilea bera jarriko da harremanetan Gizarte Segurantzarekin eta erabiltzailearentzako erreferentziako LMAUko buruarekin.
- Profesionalen (sozialen eta sanitarioen) lan-ordutegitik kanpo gertatzen diren egoera urgenteak, ospitaleetako gizarte-langileak barne:
 - Osasun-arloko detekzioa: larrialdia artatzen duten eta esku-hartze sozial urgentea egiteko beharra dagoela balioesten duten osasun-langileak telefono bidez jarriko dira harremanetan Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuekin. Zerbitzu horrek, egoera baloratu ondoren, beharrezkoak diren baliabideak ezarriko ditu detektatutako egoerari berehala erantzuteko.
 - Gizarte-eremuko detekzioa: Gizarte Zerbitzuetako langileek arreta urgentea behar duen osasun-egoera bat hautematen dutenean, Osakidetzako Larrialdiekin (112) jarriko dira harremanetan, eta horrek, larrialdi-motaren arabera, arreta emateko baliabiderik egokienera bideratuko du pertsona.

Larrialdietako Udal Zerbitzuak egindako esku-hartzea dagokion Gizarte Zerbitzuari (Udal edo Foru Zerbitzuari) jakinaraziko zaio, eta hark emango dio jarraipena esku-hartzeari.

Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzua – arreta-ordutegia: urteko 365 egunetan, 24 orduz. Tel.: 945161210

Jakinarazpena

Bi eremuetako profesionalen arteko koordinazioa eskatzen duen egoerak arrisku-adierazle argiak erakusten dituen egoera jakinetan, egungo legeriak behartzen du parte hartzen duten profesionalen (sozialak eta sanitarioak) arteko informazio-truke prozesuaz gain, inplikaturik dauden profesionalen arteko jakinarazpen formaleko prozedura bat egitera.

Jakinarazpen-prozedura hori nahitaez bete behar da honako kasu hauetan: genero-indarkeria, haurren babesgabetasuna eta adinekoren aurkako tratu txarrak (protokolo horretan jasotakoaren arabera, eta betiere balioetsita jakinarazpen horrek biktimari zer arrisku ekar diezaiokkeen). Genero-indarkeriaren kasuan, horretarako berriaz garatutako formularioaren bidez egiten da (dokumentu honen 3. eranskinean dago). Gainerako kasuetan, jakinarazpena eskaera baten bidez egingo da.

Adingabeen babesgabetasunari dagokionez, larritasun-adierazle argiak Lehen Mailako Arretan detektatzen direnean, Udaleko Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko zaie. Ospitalean detektatuz gero, egoeraren/babesgabetasunaren larritasunaren arabera, jakinarazpena dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzura edo Arabako Foru Aldundiko GOFEren Adingabeen eta Familien Arlora bidaliko da. Larritasun-adierazleen inguruko zalantzarik izanez gero, ikus 2. eranskina (19-22. or.) eta Kontsulta Zerbitzua, 9. or.

Osasun-eremuan detektatuz gero, formularioa edo eskaera:

1. Eskaneatu eta pazientearen historia klinikoan sartu beharko da
2. LMAUko buruari bidali beharko zaio, eta kopia hona: SOCIOSANITARIO.OSIARABA@osakidetza.eus.
3. Helbide honetatik dagokion Udaleko edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko harremanetarako pertsonari bidali beharko zaio, enkriptatuta.

Azkenik, LMAUko buruari eta prozedura hasi zuen profesionalari hartu-agiria eta itzulera-eskaeraren izapidea bidaliko zaizkio.

Hori egitean, Gizarte Zerbitzuak prozedura hasten duen profesionalarekin harremanetan jarriko dira, kasuari modu koordinatuan heltzeko hurrengo urratsak zehazteko.

Gizarte Zerbitzuen eremuan detektatzen bada, honela eskatuko da informazioa/koordinazioa osasun-arloarekin:

1. Gizarte Zerbitzuek mezu elektronikoa bat bidaliko dute hona, eskaera enkriptatuta duela: SOCIOSANITARIO.OSIARABA@osakidetza.eus
2. Helbide horretan, dokumentua desencriptatuko da eta pazientearen atxikita dagoen Lehen Mailako Arretako Unitatea egiaztatuko da. Hori egin ondoren, hartu-agiriarekin batera, LMAU horretako buruari helaraziko zaio eskaera-dokumentua, eta honako mezu hau erantsiko zaio: «Honekin batera doakizu Udaleko Gizarte Zerbitzuen eskaera, kasu bat kudeatzen laguntzeko».
3. LMAUko buruak eskaera jasoko du, eta unitatean pazientearen erreferentziatzeko profesionalari helaraziko dio.
4. Profesionalak eskaerari erantzun dio, eta horretarako txostena egingo du, eskatutako eta eskura duen informazioarekin. Txosten hori berriro helaraziko zaie Gizarte Zerbitzuei, enkriptatze-sistema baliatuz. Horretarako:
 - a) Administrazio Arloari txostena eskaneatzeko, pazientearen historia klinikoan sartzeko eta helbide honetara bidaltzeko eskatuko du: SOCIOSANITARIO.OSIARABA@osakidetza.eus, mezua edukian honako hau adierazita: «Honekin batera doakizu Udaleko Gizarte Zerbitzuek eskatutako informazioa», eta kopia bat bidaliko zaio LMAUko buruari.
 - b) Une horretatik aurrera, kasuaren kudeaketaren koordinazioa koordinazio-protokoloak jasotzen duen moduan ezarriko da.

Jakinarazpen-prozedura hori beti kasuak berak ikuspegi kliniko-asistentzialetik behar duenari erantsiko zaio, protokoloan ezarrita dagoen moduan.

Baterako jarraipena eta esku-hartzea

Kasuaren jarraipen egokia egiteko, profesionalen arteko komunikazioa posta elektronikoa edo telefono bidez egingo da, hobetzat jotzen denaren arabera, eta alde aurretik interesdunari baimena eskatuta (erakunde bakoitza arduratuko da baimen informatu horiek jasotzeaz eta artxibatzeaz), pertsonarentzat edo beste batzuentzat arriskua egon daitekeenetan izan ezik. Jakinarazpen hori eraginkorra izango da honakoetan:

- Diagnostikoa eta kasuaren pronostikoa argitu behar denean
- Elementu edo faktore berriak daudenean kasuaren errealtatean, diseinatutako profesional eta familiarren interbentzio-planari eragin diezaioketenak, eta baterako esku-hartze planaren eguneraketa behar duenean
- Pertsona ematen zaien arretan aldaketak daudenean
- Txosten sozialak, sanitarioak edo soziosanitarioak egin behar direnean
- Kasu guztietan, eremuetako batean pertsona/familiarekiko esku-hartzea amaitzen denean

Komunikazio-kanalak

Protokolo honek Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta ondorengo garapen-dekretuan xedatutakoa betetzeari eutsiko dio.

Araudi horren inplikazioak arreta soziosanitarioaren eguneroko praktikaren alderdi askotara hedatzen dira, baina arreta koordinatuari eragiten diote bereziki, inplikaturako erakundearen arteko komunikazio-moduak eta -kanalak nabarmen baldintzatzen baitituzte.

Kasuei buruzko informazio pertsonala telefono bidez helaraztea saihestuko da, salbu eta solaskideen nortasuna modu frogagarrian egiaztatzen bada.

Komunikaziorako erabiltzen den sistema edozein dela ere, konfidentziasuna gorde beharreko ondasun nagusi gisa mantendu beharko da beti, eta, beraz, mezu elektronikoan bidal daitekeen informazioak ez du identifikaziodaturik edo DBLOren mende dauden beste daturik izan beharko, eta eranskin gisa bidal daitekeen dokumentazioa enkriptatu egin beharko da.

Lehen mailako arreta soziosanitarioko taldeak

Protokolo honen arabera, Lehen Mailako Arreta Soziosanitarioko Taldea (LMASST) da biztanleria jakin bati atxikitako Lehen Mailako Arreta Sozial eta Sanitarioko profesionalak osatzen dutena. Talde horiek, oraindik finkatu gabe daudenak, erabat funtzionalak izango lirateke, hau da, premia soziosanitarioak dituen kasu bat detektatu ondoren sortuko lirateke, eta behar horiei modu koordinatuan erantzun arte mantenduko lirateke. LMASST bakoitza erabiltzailearen erreferentziako profesionalak osatuko dute (profesional sanitarioek eta sozialek).

Gainerako profesional guztiek (osasun- edo gizarte-alorrekoek), erabiltzailearen prozesuaren une jakin batean esku hartzea beharrezkoa bada, jatorrizko LMASSTari laguntzeko zerbitzu gisa jardungo dute.

PROTOKOLOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

JARRAIPENA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Protokolo hau dokumentu bizia eta etengabe aurrerapenak ematen dituena izan dadin lortu nahi da, xede duen biztanleriaren behar aldakorretara nahiz eragile inplikatuak haien erabileratik erator ditzaketen ekarpen eta iradokizunetara egokitzen dena.

Horretarako, Koordinazio Soziosanitarioko Protokoloaren Jarraipen Batzorde bat sortu da, inplikaturako hiru erakundeetako ordezkariak osatua (Arabako ESla, Gasteizko Udala eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea).

Batzorde hori sei hilean behin bilduko da. Bilera horien helburua honako arlo hauetan ezarritako adierazleak ebaluatzea izango da: hedapena, prestakuntza, asistentzia-jarduera (eranskina eta gogobetetzea (erabiltzaileak eta profesionalak).

Gainera, protokolo hau abian jartzean izandako gorabeherak eta hura hobetzeko proposamenak edozein unetan helarazi ahal izango zaizkie erakundeetako jarraipen-batzordeko kideei, hau da:

- GOFE: Esther Astola
- Arabako ESla: Amaia Sáenz de Ormijana
- Gasteizko Udala: Maite Ruiz de Sabando

Jarraipen Batzordearen ardura izango da, halaber, ebaluazio jarraituko prozesu hori dela-eta protokoloan egindako aldaketak eta hobekuntzak zabaltzea.



ERANSKINAK

1. ERANSKINA LEGE-ESPARRUA ETA INDARREAN DAGOEN ARAUDIA

- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa
- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizun eta kexen araubidea onartzekoa.
- 36/2014 Foru Dekretua, uztailaren 22koa, Diputatuen Kontseiluarena, arautzen duena mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere.
- Udal Prestazio Ekonomikoen Programa arautzen duen Ordenantza (2017).
- 255/1997 DEKRETUA, azaroaren 11koa, «Osakidetzaz-Euskal Osasun Zerbitzua» Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituena <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1997/11/9705728a.pdf>
- 195/1996 DEKRETUA, uztailaren 23koa, Oinarrizko Laguntzarako Osakidetzari atxikitako baliabideen antolatze egiturari buruzkoa. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/1996/08/9604052a.pdf>
- 41/2002 Legea, azaroaren 14koa, Pazientearen Autonomia eta Informazio zein Dokumentazio Klinikoaren arloko Eskubide eta Betebeharrak erregulatzen dituena. <https://www.boe.es/buscar/pdf/2002/BOE-A-2002-22188-consolidado.pdf>
- 100/2018 DEKRETUA, uztailaren 3koa, Osakidetzaz-Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoaren erakunde sanitario integratuei buruzkoa. <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2018/07/1803588e.pdf>
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa
- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Haurrak eta Nerabeak zaintzeko eta babestekoa
- 152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko Balora tresnaren eguneraketa onesten duena.
- 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa
- 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21koa, datu pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Legea garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.
- Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa.
- EAeko adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozedura.

2. ERANSKINA. GERTA DAITEZKEEN HAINBAT EGOERA

A) OSASUN-EDOGIZARTE-ARRAZOIENGATIK GIZARTE-ETA OSASUN-ESPARRUETAKO ARRETA KOORDINATUA BEHAR DUTEN PERTSONAK

- BAKARRIK BIZI DIREN PERTSONAK, GIZARTE-FAMILIAREN LAGUNTZARIK GABE: Ikuspegi psikosozialetik, arazo nagusietako bat isolamendua eta bakardadea dira. Hala ere, alderdi kuantitatiboak eta kualitatiboak bereizi behar dira. Bakardadea norberaren pertzepzioari edo sentimenduari dagokio, laguntza objektiboa izatea alde batera utzita; isolamendua, berriz, objektibatu daitekeen kontzeptua da, eta harremanen kantitatearen, parte-hartzearen eta maiztasunaren arabera neurtzen da.
- EGOKITZEKO OINARRIZKO NAHASMENDUAK DITUZTEN PERTSONAK: DIOGENES SINDROMEA. Normalean bakarrik bizi diren adinekoei eragiten dieten portaera-arazoen ebidentzia. Ezaugarri hauek ditu: zabarkeria, norbera eta gizartearekiko erabateko abandonua eta etxean borondatez isolatzea. Gehienetan, larriagoa bilakatzen da: diru, zabor edo etxeko hondakin kopuru handiak pilatzen dituzte.
- OSASUN-AGINDUAK BETETZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK.
- EGUNEROKO BIZITZAKO OINARRIZKO JARDUERAK NEKEZ EGITEN DITUZTEN PERTSONAK
- Bizimodu independentea egiteko gaitasunean oinarritutako jarduerak dira, bai nork bere burua zaintzeko (elikadura egokia, garbitzeko gainbegiratzea eta/edo laguntzea...), bai eguneroko bizitzako jarduerak egiteko (etxea garbitzea, telefonoz deitzea, erosketak egitea, zaintzea, arropa garbitzea eta konpontzea, dirua maneiatzea, janaria prestatzea, lekuz aldatzea, bidaiatzea...).
- Honako hauek aldi baterako porrot gisa ikusten dira: Arazo soziosanitarioak dituzten pertsonak/familiak, bizitza-sistema normalizatu batean aldi baterako porrota dakartenak eta itzulezina izan daitekeen narriadura-prozesua prebenitzeko laguntza behar dutenak (dependentsia-aldi luze baten ondoren pertsonak desinstituzionalizatzearen ondoriozko egoerak, moldaera harmoniko edo funtzionalerako gutxieneko trebetasunik ez izatea, aldi baterako gaixotasun ezgaitzailea). Aldi baterako porrot-egoera horiek aldizka berrikusi beharko dira.
- KANPOKO LAGUNTZA ETA/EDO LAGUNTZA ESKATZEKO MUGAK DITUZTEN PERTSONAK.
- Laguntza non lor dezakeen eta/edo laguntza eskatzeko zailtasunak eta/edo jasotako laguntzari eusteko zailtasunak identifikatzeko zailtasunak. Bereziki garrantzitsuak izango dira laguntza sozialaren kudeaketarekin lotutako zailtasunak, laguntza pertsonalerako eta sozialerako sarea osa dezaketenenak.
- DIRU-SARRERARIK EZ IZATEA ETA/EDO UDAL EDO FORU MAILAKO PRESTAZIOAK ETA GIZARTE BALIABIDEAK ESKATZEA.

Gizarte-harremanak izateko zailtasunak eragiten dituzten inguruabarrak dira, zeinek arriskua edo marjinazio-egoera sortzen duten.

Osasunarekin, elikadurarekin, jantziekin, higieinarekin eta ostatuarekin lotutako premiei erantzuteko baliabideak beren kabuz eskuratzeko pertsonen autonomia falta islatzen du. Baliabiderik eza eta, ondorioz, bizirauteko autonomiarik eza, hori lortzeko baliabide propiorik ez izateak eragin dezake (diru-sarrerak ez edukitzea edo eskasak izatea, behar nagusienei dagokienez) edo larrialdi-egoerek eragindako salbuespenezko inguruabarren ondorio izan daiteke.

Farmaziako gastuen prestazioa izapidetzeko, beharrezkoa izango da erabiltzaileak tratamendu farmakologikoaren orri eguneratua aurkeztea.

Pertsonaren erreferentziako Lehen Mailako Osasun Arretako profesionalak orri hori inprimatuko du. Ondoren, zirkulu baten bidez adieraziko du prestazioa zein farmakorako behar duen, eta FARMAKO HORREN GAINEAN data jarri eta zigilatu egingo du.

- ADINAGATIK EDO DESGAITASUN-EGOERAGATIK KOTIZAZIO GABEKO PENTSIOA JASO DEZAKETEN EGOERETAN DIRU-SARRERARIK EZ IZATEA:

Kotizazio gabeko pentsioak herritar guztiei zuzenduta daude, Gizarte Segurantzari kotizatu ez dutenei edo kotizaziopeko pentsioa jasotzeko eskubidea izateko behar beste kotizatu ez dutenei, baliabide nahikorik ez dutenei eta baldintzak betetzen dituztenei

(adina edo desgaitasun-maila), dagokion legerian adierazten denaren arabera, eta alokairuaren urteko osagarria, kotizazio gabeko pentsioen onuradunentzat.

Gizarte Ongizateko Funtzaren pentsioak aldizkako prestazio ekonomikoak dira eta beren adinagatik edo desgaitasun handiagatik lana lortu ezin dutenei eta haien beharrezanean erantzuteko bestelako diru-sarrerarik ez dutenei baliabide ekonomikoak ematea dute helburu

Bi modalitate ditu: zahartasunezko pentsioa eta gaixotasunagatik pentsioa.

Desgaitasuna duten pertsonentzako Gizarte Prestazioen eta Prestazio Ekonomikoen Sistema. Desgaitasunen bat duten pertsonen zuzendua dago, lan-jarduerarik egiten ez dutelako Gizarte Segurantzaren sistemaren aplikazio-eremuan sartuta ez dauden horiei (osasun- eta farmazia-laguntza eta mugikortasun-subsidioa eta garraio-gastuengatik konpentsazioa).

- HARREMAN SOZIALIK EZ IZATEA ETA/EDO BIZILEKURA EZ EGOKITZEA.

Ez dago laguntza funtzionalik edo emozionalik; ez dago laguntza informaleko sarerik, hau da, ez dago afektua eta laguntza emozional edo instrumentala eta laguntzeko informazioa eskatzen duten pertsonen arteko harremanik.

- GAINKARGA, DESANTOLAKETA EDO FAMILIA-NARRIADURA GAIXOEI ARRETA EMATEAGATIK

Bizikidetz-unitateko edo bizikidetz-unitatetik kanpoko kide bat edo batzuk etengabe zaintzeak ahalegin handiegia eskatzen die familiako gainerako kideek, edo, bestela, zaila egiten zaie haiek artatzea, beren aisialdia eta familia-erantzukizunak betetzea galarazten baitie.

- BIZIKIDETZA-DESOREKAK

Familiaren funtzionamenduan eragina duten inguruabarrei dagokio, izan kideren bat falta delako, izan gurasoen ezintasunagatik edo ageriko harreman-gatazka batengatik.

- Familia osoarekiko harremanak okertzea: harremanik ez edukitzea edo harreman gatazkatsuak edo manipulaziozkoak izatea.
- Bikote arteko harremanak okertzea: portaera hauetakoren bat agertu ohi da: komunikaziorik eza, oldarkortasunez jositako liskarrak izatea maiz, gaitzespena edo pasibotasuna, errespetu falta, elkarrizketarako ezintasuna edo zailtasun larria, jokabide autoritarioak, rolen gatazka.
- Familiako kideen arteko harremanak okertzea: komunikazioa okertzea, oldarkortasunez jositako liskarrak izatea maiz, kideren batekiko gaitzespena, errespetu falta, jokabide autoritarioak.
- Familiaren laguntzarik ez izatea: familiaren laguntzarik ez duen pertsona (adinez nagusia), ez duelako familia-loturarik, harremanak hondatuta daudelako edo hirian ez dagoelako familia-sarerik.
- Ohiko zaintzaileek aldi batean zainketa-lanak ezin egin izatea: egoera koiuntural batek ohiko zaintzaileei eragozten die beren ardurapean dituzten pertsonen arreta egokia ematea.
- Familiaren antolaketa txarra: ordutegiak, etxeko lanen banaketa, etxeko higiena zaintzea, mendeko pertsonen higiena zaintzea, elikadura. Zeregin horiek ez dira egiten edo egiten dena ez da nahikoa familiaren beharrei erantzuteko.
- Familia-gainkarga: bizikidetz-unitateko edo bizikidetz-unitatetik kanpoko kide bat edo batzuk etengabe zaintzeak gehiegizko ahalegina eskatzen die familiako gainerako kideei, edo haiek artatzeko zailtasuna dakarkie, aisialdiaz gozatzeko eta familia-erantzukizunak betetzea galarazten baitie
- Seme-alabak dituen aita/ama, bakarrik: seme-alaba bat edo batzuk zaintzeko ardura duen guraso bakarreko familia, beste inguruabar batzuk direla-eta kalteberatasun-egoeran dagoena.
- Ezkontideetako bat edo bikotekideetako baten abandonua: kalteberatasun/premia egoeran dagoen familia, bikotekideetako batek alde egin duelako.
- Banantze-prozesua: bikote baten banantze-prozesuak gatazka pertsonalak eta/edo familiarak sortzen dizkio familiari.
- Banantze-epaia ez betetzea: alderdi ekonomikoak, zaintzarik gabeko alderdiaren bisita-erregimena, zaintzapeko alderdiaren bisita-erregimena
- Haurdunaldi goiztiarra: haurdun dagoen 20 urtetik beherako emakumea; egoera horrek gatazka pertsonalak eta/edo familiarak sortzen ditu.
- Nahi gabeko haurduntza: haurdun dagoen emakumea; egoera horrek gatazka pertsonalak eta/edo familiarak sortzen ditu.
- Etxetik kanporatzea: familiako kide bat bere ohiko bizilekua uztera behartua dute, gatazka pertsonalak eta/edo familiar larri baten ondorioz.

- Seme-alaben esplotazioa eta/edo abusua: seme-alabek (adin nagusikoak) pertsona ustiatzen dute, haren bilobak eta beste senide ezgaitu batzuk zaintzeko.
- Nazioz haraindikoa familia - migrazioagatik familiarik banantzea: familiaren kideak bananduta daude migrazio-prozesuen ondorioz, senide batzuk jatorrizko herrialdean daude.
- Migrazioaren ondorioz familia-loturak galtzea: jatorrizko familiarik aldentzen den pertsona, gaitzaren emozionalaren eta prekaritate ekonomikoaren ondorioz, urruneko kontaktua eta komunikazioa zailtzen duena.
- Ama/aitaren hurrengo bikote-harremanengatik hedatutako familia: familia antolatzeke edo kideren baten egokitzeke zailtasunak, guraso desberdinen anai-arrebak daudenean amaren zaintza eskusibora bizi direnak.
- Harreman-desorekak familia berriz elkartu ondoren: loturak berriz ezartzeko zailtasunak edo horiek egongo direla aurreikustea eta familia berriz elkartu ondoren rola berrantolatzeke zailtasunak izatea.
- Harreman-desorekak ostatuan: pertsonak arazoak ditu ostatuko erabiltzaileekin eta/edo langileekin.
- LARRIALDI SOZIOSANITARIOKO EGOERAK, BI ZERBITZUETAKO PROFESIONALEK IDENTIFIKATUAK ETA AURREKO EGOERETAKO EDOZEINETAN SAR DAITEZKEENAK EDO EZ.

B) PERTSONAREN/FAMILIAREN BIZI-ZIKLOAREN UNEAREN MENDE EGONGO DIREN BESTE EGOERA BATZUK

• HAURREN ETA NERABEEN BABESGABETASUNA

Adingabearen (18 urtetik beherakoa) aita, ama edo tutoretzaz zein zaintzaz arduratzen diren pertsonak babes-betebeharrak betetzeko ezgaituta edo ezinduta daudenean gertatzen den egoera da. Edo modu desegokian betetzen dituztenean: halakoetan, haurrak edo nerabeak ase gabeko oinarriko beharrak izaten ditu, eta, horrek, ziur asko, kalte esanguratsua egin dio edo egingo dio haren osasunari eta garapenari,

Babesgabetasuneko egoerek arriskua edo babesgabetasuna ekar dezakete, larritasunaren arabera. Arrisku-egoeren barruan, arrisku arin, ertain eta larriko egoerak daude. Egoera horiek zehaztu egin behar dira, babesgabetasun-arazo bakoitzaren larritasun-maila adierazita.

- Jaio aurreko aldi, babesgabetasunarekiko kalteberatasunik detektatu den

Familia horietan, aita edo amak dituzten ezaugarriak edo zailtasunak direla-eta, gurasoek neurri handian dute mugatuta haurra jaio ondoren behar bezala zaintzeko gaitasuna. Orokorrean, ez da gurasoen gaitasunak murrizten dituzten eta jaio aurreko aldi espezifikoko ez diren ezaugarri edo zailtasun bakarrik izaten, baizik eta hainbat aldi berean:

- Haurdunaldiaren eta jaioko den haurraren kontrako gaitzespena edo sentimendu negatibo biziak
- Aurretiko babesgabetasun-historia izatea beste seme-alaba batzuekiko
- Babesgabetasun-historia norberaren haurtzaroan edo nerabezaroan
- Ezaugarri hauek izatea: 20 urtetik beherako adina, muga kognitiboak edo heldutasunik eza, eta babes-iturri gutxi edo bat ere ez.
- Zailtasun ekonomiko edo material esanguratsuak
- Gizarte-bazterkeria edo hura jasateko arriskua
- Nahasmendu psikopatologikoak, ondoez psikologikoko sintoma esanguratsuak (depresio-sintomak nagusiki), edo agresibitatea kontrolatzeko arazo handiak
- Ezegonkortasuna edo gatazka garrantzitsua bikote-harremanean
- Guraso-rolarekin lotutako estres-maila handia (amatasuna/aitatasuna bakarrik bizitzea, seme-alaba asko izatea, eta gaixotasun edo desgaitasun fisiko, mental edo sensorialak dituzten beste seme-alaba batzuk izatea)

- .- Jaio aurreko arriskua: jaio aurreko arriskuko egoeratzat hartzen dira emakume haurdunaren edo haren inguruko hirugarrenen berezko ekintzak, baldin eta garapen normalari kalte egiten badiote edo jaioberriari gaixotasun edo anomalia fisikoak, mentalak edo sentsorialak eragin badietzazkiokete. Ekintza horien artean honako hauek sartzen dira:
 - Haurdunaldia bide onetik joan dadin, medikuek agindutako higie- eta osasun-neurriak behin eta berriz eta modu nabarmenean ez betetzea.
 - Drogak, alkohola edo mendekotasuna sortzen duten beste droga batzuk gehiegi kontsumitzea
 - Haurdunaldirako arriskutsuak diren ekintzak egitea ohartuki
 - Bikote-harremanetan indarkeria fisikoa pairatzea.
- .- Jaio aurreko indarkeria: Amak edo aitak haurdunaldian nahita izandako portaera edo portaera arduragabea da, jaioberriak gaixotasun edo anomalia fisiko, mental edo sentsorial larriak izatea eragiten duena. «Jaio aurreko indarkeria» egon den haurra jaio ondoren zehaztuko da, eta gurasoek haurdunaldian izandako portaera eta haurrak dituen gaixotasun edo anomalia fisiko, mental edo sentsorialak lotzen dituen balorazio medikoa egin beharko da.
- .- Babesgabetasunarekiko kalteberatasuna: aitak, amak edo haren tutoretzaz edo zaintzaz arduratzen direnek asebetetzen dituzte haurraren edo nerabearen oinarriko premiak, baina dituzten familia- edo gizarte-inguruneetako baldintzek kalte nabarmena eragin dezakete epe labur, ertain edo luzean haien ongizatean edo garapenean. Honako hauek sartzen dira: familia-aurrekariak, krisi-egoerak, familiaren defizitak edo arazoak, haurraren edo nerabearen arreta mugatu edo negatiboki eragin dezaketenak; eta/edo familia- edo honako gizarte-inguruneak: nahi ez diren identifikazio-irudiak, zerbitzurik eza, delinkuentzia-indize handia, marjinazioa edo indarkeria.
- .- Indarkeria fisikoa: Haurrak edo nerabeak kalte fisikoa pairatu du edo pairatzeko arriskua dauka, aitaren, amaren edo haren tutoretzaz edo zaintzaz arduratzen diren pertsonen erasoan zuzenean ondorio gisa.
- .- Behar fisikoekiko zabarkeria: haurrak edo nerabeak kalte fisikoa jasan du edo jasateko arriskua du, aita, ama edo haren tutoretzaz edo zaintzaz arduratzen diren pertsonak ez direlako gai haren behar fisikoei arreta egokia emateko: elikadura, osasun fisikoaren zaintza, jantziak, higie pertsonala, etxebizitzaren higie-baldintzak eta/edo etxebizitzaren egonkortasuna eta bizigarritasun-baldintzak. Ezintasun hori nahita gerta daiteke, ezjakintasunagatik, motibazio ezagatik eta/edo haurraren edo nerabearen egoera gaizki baloratzeagatik.
- .- Segurtasun-premieko zabarkeria: haurrak edo nerabeak kalte fisiko edo psikikoa jasan du edo jasateko arriskua du, aita, ama edo haren tutoretzaz edo zaintzaz arduratzen diren pertsonak ez direlako gai haren segurtasun-premiei egokitutako arreta emateko: etxebizitzaren segurtasun fisikoa eta arriskuen prebentzioa, beste pertsona batzuek eragindako babesgabetasun larrien aurrean gainbegiratzea eta/edo babestea. Ezintasun hori nahita gerta daiteke, ezjakintasunagatik, motibazio ezagatik eta/edo haurraren edo nerabearen egoera gaizki baloratzeagatik.
- .- Hezkuntza-premieko zabarkeria: haurrak edo nerabeak kalte fisiko edo psikikoa jasan du edo jasateko arriskua du, aita, ama edo haren tutoretzaz edo zaintzaz arduratzen diren pertsonak ez direlako gai haren hezkuntza-premiei egokitutako arreta emateko. Ezintasun hori nahita gerta daiteke, ezjakintasunagatik, motibazio ezagatik eta/edo haurraren edo nerabearen egoera gaizki baloratzeagatik.
- .- Behar psikikoekiko zabarkeria: haurrak edo nerabeak kalte psikikoa jasan du edo jasateko arriskua du, aita, ama edo haren tutoretzaz edo zaintzaz arduratzen den pertsonak ez direlako gai haren premia psikikoei arreta egokia emateko: interakzioa eta afektua, haurraren edo nerabearen estimulazioa, gida eta orientazioa, haurraren edo nerabearen arazo emozional larriak arbuiatzea edo laguntza psikologiko edo psikiatrikoa atzeratzea eta/edo arau, muga eta balio moral positiboak transmititzea. Ezintasun hori nahita gerta daiteke, ezjakintasunagatik, motibazio ezagatik eta/edo haurraren edo nerabearen egoera gaizki baloratzeagatik.
- .- Sexu-abusua: aitaren, amaren, edo haren tutoretzaz edo zaintzaz arduratzen diren pertsonen edo bizikidetzak unitatea osatzen duten senideen edo gertukoaren edo haurraren edo nerabearen arteko edozein sexu-harreman eta -interakzio, baldin eta haurraren edo nerabearen gaineko botere- edo autoritate-posizioa duen pertsona horrek haurra edo nerabea erabiltzen badu bere, haurraren edo nerabearen edo beste pertsona baten sexu-estimulaziorako.

- .- Sexu-abusua izan daitekeenaren adierazleak: susmoa dago haurrak edo nerabeak sexu-abusua jasan duela (aurreko definizioaren arabera, baina edozein heldu barne hartuta), eta sexu-abusua izan daitekeela adierazten duten adierazleak daude: ezohiko jokabide hipersexualizatuak izatea bere eboluzio-unean, masturbazio konpulsiboa, sexu-izaerako jokabide edo joko desegokiak, sexualizazio goiztiarra...; sexu-jokoetan inplikatzeko askoz ere gazteagoak diren edo eboluzio-une desberdinetan dauden beste haur edo gazte batzuk; indar fisiko edo hertsadura psikologikoa erabiltzea beste haur edo gazte batzuek sexu-jokoetan parte har dezaten. Nerabeetan, promiskuitate sexuala, prostituzioa edo gehiegizko sexu-inhibizioa. Familiako kideren batek abusu susmoak dituela adieraztea.
- .- Sexu-abusuaren adierazle oso espezifikoak: susmoa dago haurrak edo nerabeak sexu-abusua jasan duela (aurreko definizioaren arabera, baina edozein heldu barne hartuta), eta sexu-abusuaren adierazle oso espezifikoak hautematen dira: guraso-figurek (edo beste heldu batzuek) haurraren edo gaztearen edo hitzez adieraztea sexu-abusuaren xede izan dela, abusua gertatu dela baieztatzen duen txosten medikoa edo abusua gertatzen ari denaren susmo sendoak adierazten dituen, haurraren edo nerabearen adierazle fisikoak egotea (lesioak genitalean, infekzioak, haurdunaldiak...)
- .- Indarkeria psikikoa: .- Indarkeria emozionala: haurrak edo nerabeak kalte psikikoa jasan du edo jasateko arriskua du, aitaren, amaren edo haren tutoretzaz edo zaintzaz arduratzen diren pertsonen ekintzen ondorioz, honako jokabide hauen bidez: arbuiatzea, izutzea, isolatzea, autonomia mugatzea, exigentzia handiegia, etorkizun hurbila aurreikusteko ezintasuna, ezegonkortasuna eta/edo segurtasunik eza transmititzea.
- .- Indarkeria psikikoa: Gurasoen arteko gatazketan erabiltzea. Bi guraso-figurek aktiboki erabiltzen dute haurra edo nerabea, batak besteari kalte egiteko eta/edo haurra edo nerabea beste guraso-figurarengandik behin betiko urruntzeko. Barne hartzen ditu haurra edo nerabea guraso-figura batek soilik erabiltzen dueneko kasuak ere; beste gurasoak, berriz, bere interesak defendatu nahi ditu, eta abian jarritako mekanismo edo bitarteko judizialek ez dute arazoa konpontzen, edo, areago oraindik, arazoak okerrera egiten du. Egoera horrek haurraren edo nerabearen gaitasun eta jarrerak nahasten ditu, guraso-figura batekin edo biek harreman egokia eta positiboa ezartzei edo mantentzei dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, haurrak edo nerabeak kalte psikikoa jasan du edo pairatzeko arriskua du.
- .- Indarkeria psikikoa: bikote barruko edo bizikidetzaren unitateko kideen arteko indarkeriazko egoeren eraginpean egotea. Haurrak edo nerabeak kalte psikiko larria jasan du edo jasateko arriskua du, aitaren, amaren edo haren tutoretzaz edo zaintzaz arduratzen diren pertsonen artean hitzezko indarkeria-egoeren eta/edo indarkeria fisikoaren lekuko edo jakitun izatearen ondorioz. Ulertuko da arazo hori dagoela guraso-figuretako inor ez denean gai neurriak hartzeko, ez egoera hori desagerrarazi edo kontrolatzeko, ez haurra edo nerabea indarkeriazko egoera horretatik babesteko, urrunduz.
- .- Indarkeria psikikoa: Eraso fisikoaren mehatxuak: haurrak edo nerabeak kalte psikiko larria jasan du edo jasateko arriskua du, gurasoek edo haren tutoretzaz edo zaintzaz arduratzen diren pertsonen egindako hitzezko mehatxu zuzenen edo inplizituen ondorioz.
- .- Abandona: haurraren edo nerabearen gurasoek edo haren tutoretzaz edo zaintzaz arduratzen diren pertsonen bakarrik uzten dute, nahita, itzultzeko asmoak gabe. Hirugarren pertsonekin adosten dute haurraren edo nerabearen zaintza beren gain har dezaten, eta adostutako denbora igaro ostean, ez dira itzultzen haren zaintzaz arduratzeko, eta hirugarren pertsona horiek jada ezin dute denbora gehiagoz zaindu. Sarritan uzten dute haurra edo nerabea beste pertsona batzuen ardurapean (harentzat ezegunak edo gertukoak ez direnak), plan egonkorrik adostu edo eduki gabe haien arreta bermatzeko edo erantzukizuna beste batengan uzteko denbora-aurreikuspenik gabe. Haurraren edo nerabearen arreta beren gain hartzei uko egiten diote egoitza-zentro batetik irten ondoren.
- .- Gurasoak ez dira gai haurraren edo nerabearen jokabidea kontrolatzeko: haurra edo nerabea babesgabetasun-egoeran dago, aita, ama edo haren tutoretzaz edo zaintzaz arduratzen diren pertsonak ez direlako gai haren portaera kontrolatzeko eta modu moldakorrean maneiatzeko. Kanpo arazoren bat duten haur edo nerabeen kasuak sartzen dira. Haien jokabidea ezin da kontrolatu, nahiz eta gurasoek edo haien tutoretzaz edo zaintzaz arduratzen diren pertsonen hala egin nahi duten eta gurasoek horretarako trebetasun egokiak dituztela erakutsi.
- .- Gurasoak ez dira gai haien babes-betebeharrak betetzeko: Adingabeen tutoretzaz edo zaintzaz arduratzen diren pertsonak ez dira gai haien babes-betebeharrak betetzeko edo ezin dituzte bete, edo modu desegokian gauzatzen dituzte, eta, hala, haurrak edo nerabeak ase gabeko oinarrizko beharrak ditu. Ondorioz, kalte nabarmena eragin diote haien osasunari eta garapenari, edo baliteke eragitea.

- .- Seme-alaben gurasoenganako indarkeria: adingabeak portaera bortitzak ditu guraso-figurekiko (gurasoak edo eginkizun hori betetzen duten pertsonak). Indarkeria psikiko, ekonomiko eta/edo fisikoko portaerak, biktimen gaineko boterea, kontrola eta nagusitasuna berehalaz lortzeko asmotan.
- .- Tratu desegokia: haurrak edo nerabeak kalte fisiko edo psikikoa jasan du edo jasateko arriskua du, aitak, amak edo haren tutoretzak edo zaintzak arduratzen diren pertsonen tratu desegokia eman diotelako.
- .- Honako egoera hauek barne hartzen dira: janaria edo ura nahita kentzea, konfinamendua edo murrizketa fisikoa eta/edo etxean sartzea ukatzea edo bertatik kanporatzea.
- .- Galbideratzea: haurrak edo nerabeak gizartearen egokitzeko arazo larriak ditu, edo arazo horiek izateko arriskuan dago, aitaren, amaren edo haren tutoretzak edo zaintzak arduratzen diren pertsonen jardunaren ondorioz. Egoera hauek sartzen dira: portaera antisozialeko edo desbideratuetako jarraibideak sustatzea, indartzea edo baimentzea (batez ere oldarkortasunaren, delitu-jokabideen, sexualitatearen eta drogen arloan) edo guraso-eredu asozialak eta/edo desegokiak izatea.
- .- Eskean erabiltzea: aitak, amak edo haren tutoretzak edo zaintzak arduratzen diren pertsonen haurra edo nerabea eskean aritzera behartzen dute. Toki edo establezimendu publikoetan nahiz etxe pribatuetan dirua edo baliabide materialak lortzean datza. Beste zenbaitetan, aitak, amak edo haren tutoretzak edo zaintzak arduratzen diren pertsonen haurra edo nerabea elikagaiak edo objektuak erostera edo zerbitzu jakin batzuk eskuratzera bidaltzen dute, eta diru gutxiegi ematen diete hori erosteko, nahita; edo, bestela, balio gutxiako objektuak ematen dizkiete (hala nola, paperezko musuzapiak, zuhaitzen adarrak, postalak), sal ditzaten, pertsonen borondatearen truke. Egoera horrek haurraren edo nerabearen osasun fisikoan eta/edo eskolara joatean eragina izan du, edo eragina jasateko arriskua du.
- .- Esplotazio laborala: aitak, amak edo haurraren edo nerabearen tutoretzak edo zaintzak arduratzen diren pertsonen lanak etengabe egitera behartzen dituzte (etxeko antolamenduarekin zerikusia duten zereginak alde batera utzita). Zeregin horiek ohiko mugak gainditzen dituzte, helduek egin beharko lituzkete, argi eta garbi oztopatzen dituzte haien gizarte- eta eskola-jarduerak eta -premiak eta/edo aitarentzat, amarentzat edo haren tutoretzak edo zaintzak arduratzen diren pertsonentzat edo familia-egiturarentzat onura ekonomikoa edo antzekoa lortzeko funtsezko helburuarekin esleitzen dizkiete. Egoera horrek eragina izan du haurraren edo nerabearen prestakuntza-, jolas- eta gizarte-jardueretan edo haren atsedeen-beharretan, edo arriskua du hori jasateko.
- .- Babesgabetasun larriaren aurrekariak: Aitak, amak edo haren tutoretzak edo zaintzak arduratzen diren pertsonen haurraren edo nerabearen bizitza edo oinarrizko osotasuna arrisku larrian egon daitekeela pentsarazteko moduko ezaugarri edo muga jakin batzuk dituzte, eta familia-ingurunean ez dago inolako kontrol-elementurik gabezia horiek betetzeko eta haurraren edo nerabearen oinarrizko beharrak gutxieneko maila egokian beteko direla bermatzeko.
- .- Jarraian deskribatzen ditugun egoeretan, gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ezaugarri edo muga jakin batzuk dituzte, haurraren edo nerabearen oinarrizko osotasuna eta bizitza arrisku larrian egon daitezkeela pentsarazten dutenak, eta, familia-ingurunean, ez dago gabezia horiek konpentsatu eta haurraren edo nerabearen oinarrizko beharrekiko gutxieneko arreta egokia bermatzeko kontrol-elementurik. Honako hauek sartzen dira: nahasmendu psikopatologiko larria, adimen-atzeratasun ezgaitzailea, alkoholismoaren edo toxikomanien arazo larri eta/edo kronikoa, eta adinez txikia izatea, familiaren babesik gabe.
- .- Adingabeen zaintzak ezin arduratu izatea aldi baterako edo behin betiko: gurasoek edo haren tutoretzak edo zaintzak arduratzen diren pertsonen aldi baterako edo behin betiko ezintasuna izatea adingabeak zaintzeko ezarritako babes-betebeharrak betetzeko, dela gaixotasunagatik (fisikoa, mentala, alkoholismoa eta/edo toxikomania ezgaitzaileak), dela bertan ez egoteagatik.
- .- Babesgabetasun-egoeran dagoen haur edo nerabearekin lotutako familia: babesgabetasun-egoeran dagoen eta beste familia-espeditente batean sartuta dagoen haur edo nerabe batekin harremana izateagatik artatutako familia. Barne hartutako egoerak: guraso bananduak edo familia zabala, haurraren edo nerabearen zaintza-lan garrantzitsuak betetzen dituenak.
- .- Babesgabetasun larriko aurrekariengatik kalteberatasun-egoeran dagoen gaztea: babesgabetasun larriko egoeran egoteagatik familia-harrerako eta/edo egoitza-harrerako programetan adin-nagusitasunera arte artatua izan den gaztea, adin nagusitasunera iritsita bizitza independenteari aurre egiteko baliabide pertsonal eta ekonomikorik ez duena eta autonomia pertsonala sustatzeko laguntza behar duena.
- .- Inoren kargura ez dagoen adingabe atzerritarra (IKEDAA): adingabe atzerritarra, ez datorrena Europar Batasunetik eta bere familia Europar Batasunean ez dagoen beste herrialderen batean bizi dena.

• GENERO-INDARKERIA

Emakumea izatean oinarritzen diren indarkeria-ekintzak, emakumeei min edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa eragiten dietenak edo eragin diezaieketenak, baita ekintzok egiteko mehatxuak, bortxa edo askatasunaren ukatze arbitrarioak, bai bizitza publikoan, bai pribatuan. Diskriminazioaren, desberdintasun-egoeren eta gizonen emakumeen gainean dituzten botere-harremanen agerpen gisa gertatzen den indarkeria da, beti gizonen emakumeen aurka egiten dutena eta emakumeen gaineko botere-, kontrol- eta aginte-abusua irabaztea edo mantentzea helburu duena.

- Emakumeen aurkako indarkeria fisikoa: emakumearen segurtasun fisikoa arriskuan jarri edo kaltetzen duen eta istripuz egiten ez den egintza da. Bai jokabide aktiboak (kolpeak, ile-tiradizoak, ukabilkadak, ostikoak, bultzadak, estutuak, masailekoak, atzamarkadak, atximurkadak, erredurak, hozkadak, itoarazten saiatzea, arma zuriz, su-armaz, beste objektu batez... hilketa), bai jokabide pasiboak (zainketa medikoak kentzea gaixotasun bat edukitzean eta indarkeriaren ondoriozko lesio fisikoen ostean...).
- Emakumearenganako indarkeria emozionala/psikologikoa: emakumearen osotasun psikikoa kaltetzen edo arriskuan jartzen duten nahita eginiko ekintzak. Modu bizi eta jarraituan egiten diren ekintzak edo omisioak dira, eta emakumeen ekintzak, portaerak, jokaerak, sinesmenak eta erabakiak deuseztatu, beheratu edo kontrolatzea dute helburu. Horretarako, larderia, manipulazioa, zuzeneko edo zeharkako mehatxuak, umiliazioa, mespretxua, gaitzespen afektiboa, elkarreragineko ekimenen blokeoa, isolamendua edo emakumearen osasun psikikoan, autodeterminazioan kaltea dakarren beste edozein jokabide erabiltzen da.

Jokabide eta jarrera hertsatzaileak eta etsaitasunezkoak, aktiboak nahiz pasiboak, hitzezkoak nahiz hitzezkoak ez direnak, publikoan zein pribatuan gerta daitezkeenak: balioa kentzea (kritikak, umiliazioak, deskalkifikazioak, gutxiespenak pribatuan eta/edo publikoan, etengabea barregarri uztea), etsaitasuna eta axolagabetasuna, irainak, mehatxuzko jarrera eta keinuak, heriotza-mehatxuak harekiko eta/edo beste senide batzuekiko, adingabeak tratatzeari eta zaintzeari buruzko mehatxuak, suizidio-mehatxuak, larderiako telefono-deiak edo iraingarriak, murrizketa-jokabideak (lagunen kontrola, lagunekin eta/edo senideekin harremanak izateko eragozpena, etxetik irteteko murrizketak), jazarpena, etxetik kanporatzea, portaera suntsitzaileak (ondasun pertsonalak suntsitzea: balio ekonomiko edo afektiboa duten objektuak, etxeko animalien kontrako indarkeria), sinesmen politiko edo erlijiosoaren sistemak inposatzea, emakumea errudunestea, gizonaren indarkeriazko portaerak, stalking edo hertsatzea (telefono-deiak, mezu elektronikokoak bidaltzea, SMS...).

- Emakumearen aurkako sexu-indarkeria: biktimaren baimenik gabe egindako sexu-izaerako jokabideak. Bortxazko edozein sexu-intimitate ezartzea, mehatxuen, derrigortzearen, larderiaren, babesgabetasunaren edo norberaren borondatea deuseztatzen edo mugatzen duen beste mekanismoren baten bidez.

Sexu-jokabidea, bagina- edo uzki-sarketara mugatu gabe: sexuari buruzko txisteak eta txantxak, telefono-dei iraingarriak, exhibizionismoa, irainak, bortxaketa (baginakoa, uzkikoa, ahokoa), sexu-erasoak, sexu-abusua, estuproa, sexu-jazarpena, haurdunaldi behartua, biktimak iraingarritzat jotako jokabideak ezartzea.

- Emakumearenganako indarkeria materiala/ekonomikoa: emakumearen bizitzako alderdiei buruzko ekintzak, portaerak eta erabakiak kontrolatzeko ekintzak edo omisioak. Diruari buruzko informazioa edukitzeko eskubidea edo dirua bera erabiltzeko ukatu egiten zaizkio tratatu txarrak jasaten dituen pertsonari. Ez uztea kontuetara sartzen, dirua atxikitzea, emakumeak ondasun komunetan parte hartzea eragozteko edo mugatzea, xantaia ekonomikoa, diru-sarreraren erabateko kontrola; lanpostu bat betetzeko edo hezkuntza jasotzeko eragozpena, jabetza-eskubideak ukatzea, seme-alabei mantenu-pentsioak ez ordaintzea...
- Bikotetik kanpoko sexu-erasoa: botere-posizio batetik egindako edozein motatako sexu-harreman (jazarpena, intzestua, bortxaketa, iseka sexualak, kontaktu fisikorik gabeko sexu-abusua, exhibizionismoa, agintekeria plazera lortzeko).

Sexuari buruzko txisteak eta txantxak, telefono-dei iraingarriak, exhibizionismoa, irainak, bortxaketa (baginala, uzkikoa, ahokoa), sexu-erasoak, sexu-abusua, estuproa, sexu-jazarpena, haurdunaldi behartua, biktimak iraingarritzat jotzen dituen jokabideak ezartzea.

- Esplotazio sexuala eta ekonomikoa helburu duten emakumeen legez kanpoko trafikoa: pertsonak erakartzea, garraiatzea, lekualdatzea, ezkutatzea edo hartzea, mehatxuen bidez edo indarra erabiliz, edo derrigortzeko, bahitzeko, iruzur egiteko, engainatzeko, botere-abusuaren bidez edo kalteberatasun-egoera baten bidez, edo ordainketak edo onurak eman edo jasotzearen bidez, beste pertsona baten gaineko kontrola duen pertsona baten baimena lortzeko, esplotatzeko helburuekin. Esplotazio horretan sartzen dira besteren prostituzioaren esplotazioa edo sexu-esplotaziorako beste modu batzuk, lan edo zerbitzu behartuak, esklabotza edo esklabotzaren antzeko praktikak, mirabetza edo organoen ateratzea.
- Bikotekide ohiak emakumeari egindako indarkeria psikologikoa
- Bikotekide ohiak emakumeari egindako indarkeria fisikoa

- Segurtasun-indarrek balioetsitako arrisku-egoera: Segurtasun-indarrek (Udaltzaingoko edo Ertzaintzako familia-indarkeriaren taldea), genero-indarkeriaren arriskua baloratzeko egiten duten ohiko lanean, zehazten dutenean biktimak erasoren bat jasateko arriskua duela eta egoera horren aurrean babes-neurriak hartu behar direla.
- Genero-indarkeriako egoera batean berriz ere elkarbizitzen hasia: bikotekidearen eskutik genero-indarkeria jasan duen eta abusuzko harremanetik aldentzeko eta harremana hausteko prozesua hasi duen emakume batek erasotzailearekin berriz bizitzea erabakitzen duenean.
- Behin eta berriz genero-indarkeria ematen den harreman sentimentalak izatea: emakume bat gizon erasotzaileekin abusuzko harremanetan murgilduta egon denean, antzeko biktimizazio-istorioak errepikatuz.
- Emakumearen aurkako sexu-jazarpena eta larderia lanean, erakundeetan edo beste leku batzuetan
- Ohorearen eta emakumeen mutilazio genitalaren zein sexualaren izenean egindako krimenak eta emakumearentzat kaltegarriak diren beste praktika tradizional batzuk: historian zehar gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-harreman sozial eta ekonomikoetan oinarritzen diren tradizio kaltegarriak, osasun fisikoa eta psikikoa eta neskatoen eta emakumeen osotasuna kaltetzen dituztenak, eta haien osasunean eta ongizatean ondorio negatibo larriak eragiten dituztenak. Tradizio horien artean daude emakumeen mutilazio genitala, ezkontza eta ugaltze goiztiarrak eta generoagatiko alborapenak.
- Adin nagusiko seme-alabek amei genero-desberdintasunagatik eragindako indarkeria: indarkeria fisikoko portaera errepikatuak (erasoak, kolpeak, bultzadak, objektuak botatzea), hitzezkoak (irain errepikatuak, mehatxuak) edo hitzik gabekoak (mehatxuzko keinuak, objektu preziatuak haustea), adin nagusiko semeek beren amei eginikoa, sinesten dutelako emakumeak haiek baino gutxiago direla. Egoera horietan, semeak indarkeriaz tratatzen du ama, haren gaineko boterea, kontrola eta agintea irabazteko edo mantentzeko.

• ETXEKO INDARKERIA

Etxeke indarkeriak, familia-indarkeriak edo familia barruko indarkeriak barnean hartzen ditu familiako kide batek beste bati egiten dizkion indarkeriazko ekintza guztiak, eraso fisikoak, psikikoak eta psikologikoak.

- Bikotekideak gizonarenganako izandako indarkeria: ustekabekoa ez den ekintza oro, nahita egindakoa, gizonaren osotasun fisikoa arriskuan jartzen edo kaltetzen duena.
- Bikotekideak gizonarenganako izandako indarkeria emozionala/psikologikoa: gizonaren osotasun psikikoa kaltetzen edo arriskuan jartzen duten ustekabekoak ez diren ekintzak. Modu bizi eta jarraituan egiten diren ekintzak edo omisioak dira, eta helburua gizonaren ekintzak, portaerak, jokaerak, sinesmenak eta erabakiak deuseztatu, beherratu edo kontrolatzea da. Horretarako, larderia, manipulazioa, zuzeneko edo zeharkako mehatxuak, umiliazioa, mespretxua, gaitzespen afektiboa, elkarreragineko ekimenen blokeoa, isolamendua edo osasun psikikoan, autodeterminazioan edo garapen pertsonalean kaltea eragiten duen beste edozein jokabide erabiltzen da.
- Kategoria horren barruan honako hauek sartzen dira: jokabide eta jarrera hertsatzaileak eta etsaitasunezkoak, aktiboak nahiz pasiboak, hitzezkoak nahiz hitzezkoak ez direnak, publikoan zein pribatuan gerta daitezkeenak: balioa kentzea (kritikak, umiliazioak, deskalifikazioak, gutxiespenak pribatuan eta/edo publikoan, etengabea barregarri uztea), etsaitasuna eta axolagabetasuna, irainak, mehatxuzko jarrera eta keinuak, heriotza-mehatxuak harekiko eta/edo beste senide batzuekiko, adingabeak tratatzeari eta zaintzeari buruzko mehatxuak, suizidio-mehatxuak, larderiako telefono-deiak edo iraingarriak, murrizketa-jokabideak (lagunen kontrola, lagunekin eta/edo senideekin harremanak izateko eragozpena, etxetik irteteko murrizketak), jazarpena, etxetik kanporatzea, portaera suntsitzaileak (ondasun pertsonalak suntsitzea: balio ekonomiko edo afektiboa duten objektuak, etxeke animalien kontrako indarkeria), sinesmen politiko edo erlijiosoen sistemak inposatzea, emakumea errudunestea, gizonaren indarkeriazko portaerak, stalking edo hertsatzea (telefono-deiak, mezu elektronikoak bidaltzea, SMS...).
- Adin nagusiko seme-alabek gurasoenganako izandako indarkeria: behin eta berriz indarkeria fisikoko portaera errepikatuak (erasoak, kolpeak, bultzadak, objektuak botatzea), ahozkoak (irain errepikatuak, mehatxuak) edo hitzik gabekoak (mehatxuzko keinuak, objektu preziatuak haustea), adin nagusiko seme-alabek egindakoak eta gurasoei edo haien lekua betetzen duten helduei (tutoreak, hezitzaileak, etab.) zuzendutakoak.
- Sexu bereko bikote-indarkeria: bikote homosexualen arteko harremanetan indarkeria edo tratatu txarrak ematen diren egoerak.
- Bizikidetzeta-unitateko kideen arteko indarkeria: familia- edo bizikidetzeta-lotura duten bi pertsonaren artean tratatu txarrak edo indarkeria ematen den egoerak, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanarekin edo bikotekidearekin bat ez datozenak.

- Indarkeriaz jositako bizikidetzari berriro ekitea: indarkeria erabiltzeagatik bereizten zen (baina ez genero-indarkeriagatik) harremana etetea erabaki zuen bikote batek berriro ere bizikidetzari ekitea erabakitzen duen egoerak.
- Behin eta berriz indarkeriaz jositako harreman sentimentalak izatea: pertsona bat indarkeria erabiltzeagatik bereizten den (baina ez genero-indarkeriaren) bikote-harremanetan murgilduta egon den egoerak.

• ADINEKOEI EDO MENDEKOTASUNA DUTENEI TRATU DESEGOKIA ETA/EDO TRATU TXARRAK EMATEA

Ekintza bakarra edo errepikatua, edo erantzun egokirik ez ematea, konfiantza izateko itzaropena duen eta adineko bati kaltea edo larritasuna eragiten dion edozein harremanetan gertatzen dena. (Hainbat motatakoa izan daiteke: fisikoa, psikologikoa/emozionala, sexuala, finantzarioa edo, besterik gabe, nahita edo omisioagatik zabarkeriaz jokatzeko). Helburua da kalteberatasun-egoerak edo tratu txarrak jasateko arrisku-egoerak prebenitzea eta detektatzea, adinekoek jasaten duten kaltearen arriskua sailkatzeko eta egin beharreko esku-hartzea zehazteko ezarritako faktoreak/adierazleak hautemateari dagokionez.

- Adinekoaren aurkako tratu txar fisikoa: adinekoari gorputzeko kaltea, mina, narriadura edo lesio fisikoak eragiten dizkion indar fisikoko ekintzak edo nahita egindako indarkeria.
- Adinekoaren aurkako tratu txar psikologikoa: hitzezko edo hitzik gabeko ekintzak, adinekoari kalte edo lesio emozionala eragiten diotenak, eta, nahita, larritasuna, pena, duineztasun-sentimenduak, beldurra edo estresa eragiten dutenak. Tratutxar psikologikoaren barruan sartzen da oinarritzko eskubideak urratzea: adinekoari legez dagozkion oinarritzko eskubideak kentzea dakarten ekintzak: intimitatea, erabakiak hartzea, erlijio-aukeraketa, gizartean parte hartzea, konfidentzialtasuna, zaindua izateko eskubidea, aukeratzeko askatasuna...
- Adinekoaren aurkako sexu-abusua: sexu-izaerako jokabideak edo kontaktua, edozein motatakoa, saiakera edo burutua, adinekoaren baimenik gabe, dela behartua izan delako, dela ez duelako baimen hori emateko gaitasunik, dela engainu bidez egin delako.
- Adinekoaren aurkako abusu ekonomikoa: adineko baten funtsak, jabetzak edo baliabideak baimenik gabe, legez kanpo edo modu desegokian erabiltzea.
- Adinekoa abandonatzea: adinekoaren arreta bermatzeko beharrezko zaintzak emateaz arduratzen den pertsonak guztiz amore ematea.
